



DURANGOKO UDALA

BULEGO TEKNIKOAREN ZERBITZUAK



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

1. NORTZUK GARA

Bulego teknikoa Lurralde arlor atxikita dagoen unitatea da eta hauek dira bere lan ildoak:

- Hiri-garapena planifikatzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.
- Udal hiri-zerbitzuak eta zuzkidura publikoak (udal eraikinak eta udal eremu publikoak) era eraginkor batean kudeatzea.
- Interesatuei arreta eta orientazioa ematea obrei, jardueri, eremu publikoaren okupazioari eta erabilerari buruzko administrazio-prozeduretan. Horretarako, dagozkien administrazio-espedituentz izapidetuko dira, baimena emateko.
- Hirigintza-informazioa, ingurumen-informazioa eta udal zerbitzuen kudeaketari buruzko informazioa ematea.

2. ARLOKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK

ZERBITZUA	
Hiri planeamenduko administrazio espedienteak tramitatzea	Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketak, Plan Partzialak, eta abar.
Obra partikularren proiektuei buruzko arreta eta orientazioa	Kokalekua dela-eta, obra-proiektuan eragina izan dezaketen egoerei buruzko informazioa, arreta eta orientazioa, baita beharrezko prozedurena eta dokumentazioarena ere, espedientea zuzen tramitzeko. Arreta berezia behar duten kontsultak ez dira atal honetan sartuko.
Eraikin berrien, urbanizazioen ea hiri planeamenduaren inguruko arreta eta orientazio pertsonala	Obra-proiektuan, urbanizatzeko lanetan edo udal-planeamenduan eragina izan dezaketen egoerei buruzko informazioa, arreta eta orientazioa.
Jarduera-proiektuen inguruko arreta, orientazioa eta tramitea	Jarduera-proiektuan eragina izan dezaketen egoerei buruzko informazioa, arreta eta orientazioa, baita beharrezko prozedurena eta dokumentazioarena ere, jarduera, aurrekomunikazioa eta titulartasun aldaketa edo baja espedienteak zuzen tramitzeko. 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko, zenbait lege aldatzeari buruzko apirilaren 23ko 7/2012 Legean sailkatutako jardueren zerrendako A taldean bildutako jardueren espedienteak tramitatzea.
Obra espedienteak kontsultatzea	Kontsultagilea titularra den edo obra horretan interes legitimoa duen obra espedienteekin zerikusia duten alderdi guztien arreta eta informazioa.
Hirigintzako informazioak	Idatziz ematen da indarrean dauden plangintza- eta kudeaketa-tresnei buruzko informazio zehatza. Indarraldiak irauten duen bitartean loteslea izango da informazioa hori. Hirigintzako informazioak honakoak hartzen ditu barne: finka baten eraikigarritasun-baldintzak (baimendutako solairuen kopurua, sakontasuna, lurzatiaren sarrerak bereiztea, eta abar), baimendutako erabilera motak ezagutzea (etxebizitza, bizilekua, merkataritza, industrial, osasun-sistema, eta abar), sistema orokorretan edo lokaletan egin daitezkeen atxikipenen berri izatea (bideak, berdeguneak, ekipamenduak, baso-parkeak, eta abar); eta, hala badagokio, proiektaturiko antolamendua garatzeko jarduketako sistemak ezagutzea (desjabetzea, birzatiketa). Baldintza horiek guztiak hirigintza planeamenduak ematen ditu.
Eraikinen ikuskapen teknikoa	Bizitegi-eraikinen azterketa teknikoa da. Eraikinen kontserbazio-egoera ezagutzeko aukera ematen du, egon daitezkeen mantenu-arazoak hautemanez eta eraikinaren energia-eraginkortasunari eta irisgarritasun-baldintzei buruzko informazioa emanez. Teknikari eskudun batek idatzita egon behar du, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legeak horrela ezartzen baitu.

Obren espedienteak tramitatzea	Erantzukizun aitortenaren bitartez hasi ezin diren obren espedienteak tramitatzea.
Pasabideak	Ibilgailuak sartu eta irteteko bide publikoak mugatzeko lizentziak tramitatzea, eraikinetan zein orubeetan edo obra-eremuetan. Pasabidearen titularrak lizentziarekin zerikusia duten kudeaketa guztiak egin ahal izango ditu (baja, aldaketa eta titulartasun aldaketa).
Ostalaritzako terrazak	Bide publikoan ostalaritza lokaletako terrazak eta mahaiak jartzeko espedienteak tramitatzea.
Hirigintza disziplina	Lizentziei, obrei, jardueri eta ingurumen-baldintzei buruzko salaketak ikuskatzea eta egiaztatzea, idatziz zein beste bide batetik egin badira. Atal honek ofizioz egindako ikuskapenak eta egiaztapenak hartzen ditu barne, baina ez da exekuzio-konpromisorik ezartzen, zuhurtiaz jokatzearagatik.
Beste sailentzako txosten teknikoak idaztea	Beste departamentuetako espedienteen gaineko txosten teknikoak idaztea
Bandoak	TAOri buruzko bandoak eta kaleak ixteko edo ur-mozketak egiteko bandoak argitaratzea.
Kale garbiketa eta hiri hondakinak kudeatzea	Kale garbiketari eta hiri hondakinak kudeatzeari buruzko kexak tramitatzea.
Kalean utzitako hondakinak batzea	Kalean utzitako hondakinei buruzko kexak tramitatzea.
Pintadak garbitzea	Udal eraikin publikoetako pintadak ezabatzea (Toki administrazioetako eskolak, kirol-zentroak) eta/edo pertsona jakin batzuen ohore eskubideari eragiten dioten pintadak, edo delituak izan daitezkeenak eta/edo beste lege arauen bat urratzen dutenak. Jabegoari dagokio gainontzeko pintadak ezabatzea, kontserbatzeko eta zaharberritzeko lege-betebeharren arabera.
Mugikortasuna	1. Ibilgailuak gunen pribatuetara sartzeko baimen berezien kudeaketa. Mugikortasunarekin, plaza irisgarrien erreserbarekin eta gunen arautuetan sartzeko baimenekin zerikusia duten baimen bereziak tramitatzea. 2. TAO ordenantza aldatzeko iradokizunak tramitatzea (ordutegiak, tarteak, ...).
Tokiko Agenda 21 eta plangintza jasangarria kudeatzea	Udalerriko ingurumen, ekonomia eta gizarte mailako politikak jasangarritasun irizpideen arabera integratzea. Ordezkaritza politikoak, udaleko pertsonal teknikoa, gizarte eta ekonomia eragileak eta, orokorrean, herritarrak izango dira Plan honetako partaide eta erabaki-hartzaile.
Udal eraikinak mantentzea	Udal eraikinetan konponketak eta mantenu-obrak egitea, betiere aurrekontu partida baten menpe ez badaude.
Bide publikoak mantentzea	Berdeguneetan, galtzadetan, seinaleetan, argiterian, horniketan eta estolderian egon daitezkeen matxurak konpontzea, betiere aurrekontu partida baten menpe ez badaude.

Hiri altzarien ekipamendua	Hiri-altzariak, hiri-hondakinen edukiontziak eta urbanizazioko bestelako elementuak konpontzea, aldatzea eta hornitzea. Salbuetsita daude norberaren kontuengatik (obrak, ekitaldiak, ...) egindako lekualdaketak. Atal honetan ez dira umeen jolasak sartzen.
Umeen jolasak konpontzea	Umeen jolasak konpontzea eta mantenu-obrak egitea.
Udal saneamendua libratzea	Buxatuta dauden udal saneamenduak libratzea.
Hiriko izurriteen kontrola	Izurriteen (arratoiak...) ugaritzea kontrolatzeko beharrezko baliabideak ezartzea. Kanpo geratzen dira eremu pribatua, partzelak, lurzoruak eta gainerako jabetza pribatuak. Atal honetan ez dira usoak sartzen. Urtean bi harrapaketa egingo dira, bata urte hasieran eta bestea uda bukaeran.
Udal webguneko hirigintza informazioa eguneratzea	Sailari dagokion udal webguneko informazioa eguneratuta mantentzea (planoak, saileko tramiteak, ...).
Partaidetza bideak, kexak, erreklamazioak eta iradokizunak	1.- Eskaera aurkeztea. 2.- Eskaera dagokion teknikariari bidaltzea. 3.- Erantzuna hala eskatu bada. 4.- Teknikari arduradunaren jarduketa
Udal proiektuak	Bulego Teknikoari lotutako zerbitzu eta inbertsioei buruzko proiektu teknikoak eta kontrataziorako pleguak egitea eta kudeatzea, eta udal kontratuak gauzatzen direla egiaztatzea.

3. KONTAKTUA

ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEFONOA	E-MAIL
Bulego Teknikoa	Barrenkalea, 17. 48200. Durango	94 603 00 11	bulegoteknikoa@durango.eus

Bulego teknikoa
LURRALDE ARLOA



DURANGO
Garena eginez Vivir y convivir